# JUAN SAN MARTIN ETA GURUTZEAREN ALABEI OMENALDIA UDALETXEAN



Duela zenbait urte hasi zen Hondarribiko Udala herriaren alde lan oparoa egin dutenen aldeko ezagupen moduko bat ospatzen, urrezko intsigniak urtero bi pertsona edo erakunderi emanaz.

2003an Juan San Martin eta Gurutzearen Alaben Kongregazioa izan ziren hautatuak. Guztiok soberan ezagutzen ditugu aurtengo ezagupenak jasoko dituztenak. Alde batetik, Juan San Martin euskaltzale, historialari eta idazlea, 1922an Eibarren jaioa, eta hainbat alorretan murgildua etengabe lanean bizitza osoan. Duela gutxi merezitako omenaldia jaso zuen Koldo Mitxelena Kulturunean bost ekitalditan, eta orain, 1982az geroztik bere herrikideak direnak izango dira omenaldi hau eskainiko diotenak.

Beste alde batetik, Gurutzearen Alaben Kongregazioa daukagu. Iaz 100 urte bete ziren Hondarribira etorri zirenetik. Hain zuzen ere, 1903.urteko ekainaren 9an iritsi ziren Gurutzearen Alabak gure artera, eta San Jose Ikastetxearen ardura daramate, ehundaka haur daudelarik bere erantzunkizunaren menpean.



Egun, 100 urte betetzen dituen gure ikastetxea honelaxe osatzen da: Haurtzaindegiko sei gela, Haur Hezkuntzako beste hiru, Lehen Hezkuntzako sei eta azkenik DBHko lau gela.

TABERNA - JATETXEA



*Beti euskararen alde*

*Mouriskot etxea*
*Tel. 943 64 53 64*
*20280 HONDARRIBIA*

**¿Necesitas fotos tipo carnet?**

D.N.I., CONDUCIR, CAZA, COLEGIO, ETC.
O SIMPLEMENTE PARA REGALAR A TUS AMIGOS

**20 FOTOS CARNET**

POR SOLO 3,58 euros

595 PTS.

foto FRANAN
Zuloaga,4
Frente al ambulatorio
HONDARRIBIA